

SPE SALVI

“Spe salvi facti sumus”, itxaropenez salbatuak gara (Erm 8, 24). San Pauloren berba honeekin hasten dau Benedikto XVI.ak bere bigarren Entziklika. Beste erregalu eder bat Aita Santuak egin deuskuna azkenengo gabonetan. Badago egon be itxaropenaren premina galanta.

Entziklika honetan be, behin eta barriro ikusten da Benedikto XVI.aren jakituria. Goi-mailako intelektuala dogunik, ezin leiteke ukatu. Bere maisutasuna garbi ikusten da filosofia eta teologiako gaitan.

Badaki gaiak aztertzeko orduan, gauzak kokatzeko, pregunta aproposak egiten. Eta gainera, kontzeptuak azaltzeko ejenplu egokiak jartea gogoko jako. Hor be agertzen dau irakasle ona izan dala.

Nahizta alemana izan Benedikto XVI.ak, darabilen hizkera be ez da hain zaila egiten. Eskertzekoa da hori, pastoral lanean gabizantzat. Entziklikan zehar hainbat pentsalari handi agertzen dira. Besteak beste: Platon, Agustin, Akinoko Tomas, Kant, Francis Bacon, Engels, Marx, Horheimer, Teodor W. Adorno, Dostoievski eta abar. Baina badira testigu apalak be. Esaterako, Josefina Bakhita afrikarra edo Le-Bao eta Nguyen Van Thuan asiarrak. Euron hunkigarritzko testigantzak itxaropena biztu eta bihotz barnea eztitu egiten dabe.

ITXAROPENAREN MAMIA

Entziklikaren lehenengo zatian, Aita Santuak Itun Barrian eta Eleizaren hasierako mendetan zehar itxaropenaren mamia aztertzen ari da. Eta jarraian, itxaropen horrek jasan dauan aldaketa aro modernoan hartzen dau kontuan. Hau da, Francis Bacongan-dik hona. Merezi dau gaurko egoera ulertzeko, 16. zenbakitik 23. zenbakiraino irakurtzea. Begirada jeniala eta zorrotza, deritxat.

Eta hona hemen laburtuta Aita Santuaren konklusio batzuk.

a. Ezin gara itxaropen barik bizi. Bestela ezin dogu aurrera egin. Gizakiok bizitzan zehar itxaropen asko ditugu. Urteen arabera desberdinak be badira askotan. Umetako edo gaztetako edo zahartzaroko itxaropenak gehienetan diferenteak izaten dira. Batzutan itxaropen txikiak eta bestetan handiak. Urteak igaroz, gure itxaropenak be aldatzen doaz. Baina beti be txiki geratzen dira. Ez dira gauza gure bihotzaren egarri bizia asetzeko.

b. Aro modernoan sortutako itxaropen handienak honeek ditugu. Bata zientziaren progresuan oinarritzen dana. Bestea ekonomiaren aldakuntzan eta azkena iraultza politikoan datza. Aita Santuaren kritikari sakona baina leiala deritxat. Azken baten, hirurok mito bihurtu dira. Garbi esanda, nahizta lorpen batzuk ekarri, gizakion bihotza betetzeko itxaropen txikiegiak ditugu. Bihotza asetzeko itxaropen nagusienaren bila gabiltza.

c. Itxaropen nagusia Jaungoikoa ezagutzean eta maitatzean sortzen da. Ez edozein Jaungoiko, Jesukristoren Jaungoikoa baino. Bera baita azkeneraino beti maite gaituana. Maitasun hori onartu eta maitasunez erantzuten dogunean, hortxe bertan sortzen da egiazko itxaropena. Behin baino geiagotan aipatzen dau Aita Santuak Entziklika honetan San Pauloren pentsamentu hau: “Orduan Kristo barik zengozen, lur honetan ez itxaropenik ez Jaungoikorik ez zeunkelako” (Ef 2, 12). Beste itxaropen guztiak txiki geratzen dira Jaungoikoagan oinarritzen dan itxaropenaren ondoan.

d. Egiazko itxaropen horrek bihotzak barru-barrutik aldatze-ra garoaz. Itxaropen hori barnean daroana, beste modu batera

biziko da. Beste begi batzuk ditu gauzak ikusi eta maitatzeko orduan. Beste pertsona bat dirudi. Ebanjelioa ez da gauza geiago jakiteko, beste modu batera, hau da, Jaunaren arabera bizitzeko baino. Ebanjelioa ez da teoria bakarrik, bizitzea be bada. Aita Santuaren esanetan, Ebanjelioa ez da bakarrik “informatiboa”, “performatiboa” be bada. Guzti hori ziurtatzeko, Josefina Bakhitaren esperientzia hunkigarria dakar.

ITXAROPENTEGIAK

Egiazko itxaropena indartu eta bizkortzeko, esku arteko hiru aukera jarten deuskuz Aita Santuak. Lehenengoa, bakarko eta alkarteko otoitza. Bigarrena, sufrimentua. Eta hirugarrena, Jaungoikoaren azken epaia.

1. Otoitza

Fededuna ez dago inoiz ere bakarrik. Jaungoikoagaz aurkitzen da beti. “Inok jaramonik egiten ez deustanean be, Jaungoikoak entzungo deust. Inogaz berbarik egin ezin dodanean ere, Jaungoikoaz berba egin daiket”. Otoitza zer dan eta zer ez dan erakusteko, San Agustinen irakaspenak ditu, batez be, gogoan.

Egiazko otoitzak barnetik sendotzen dabela adierazteko, Nguyen Van Thuan kardinalaren ejenplu sentibera dakarsku.

2. Oinazea

Sufrimentua hortxe daukagu. Gizakion zati bat besterik ez dogu. Alde batetik mugatuak garalako eta bestetik historian zeharreko eta gure egunetako kulpa eta erruagatik sortzen da gure sufrimentua. Baina ahalegin guztiak egin behar ditugu sufrimentua kentzen. Justiziaren eta maitasunaren exigentzia dala-ko. Hori bai, mugaturik eta kulpaz jota gagozanez, sufrimentua mundutik guztiz erauzteko ahalmena ez dago gure eskuetan. Hori bakarrik Jaungoikoak egin ahal dau. Historiaren erraietan murgilduta gizon egin dan Jaungoikoaren Semeak kendu leike “munduko pekatua”.

Maitasunari erantzuteko orduan, sarritan sufritzea tokatuko jaku. Maitasunak norbere buruari uko egitea eskatzen dauanez, maitasunak berak be sufrimentua sortzen dau. Baina maitasunagaitik edo egiagaitik edo justiziagaitik sufritzeak, gizadia duindu, nobletu egiten dau.

Vietnango Leo-Bao Thinen testigantza jarten dau Aita Santuak. Bihotza hautsita izten dau martiri honen eskutitzak. Kristau itxaropenaren poema zirrargarri bat dirudi!

3. Azken epaia

Azken baten, Jaungoikoak epaituko ditu hildakoak eta bi-ziak. Itxaropen honek betidanik moldeatu ditu gizakion bizi-tzak. Fedeak ez gaitu jarten atzera begira. Ezta gora begira be. Aurrera begira baino, hau da, Jaungoiko zuzen eta errukitsuari begira.

Itxaropen honek orainaldiari inportantzia erabagikorra emoten deutso. Gure erantzunak itzelezko garrantzia dauko etorki-zunari begira. Mundu honetan, zoritxarrez, ia ez dago ganorazko justiziarik. Eta justiziaren ase ezinezko egarri bizia danok daroagu geure barnean. Honek esan nahi dau, badagola betiko bizitza. Eta Jaungoikoak, epaile zuzena danez, berak emongo deutso bakotxari berea. Jaungoikoak kontuak eskatuko deutseez errudunei eta egiatzko justizia egingo dau. Hainbat eta hainbat errubakoren intziriak ez dira bertan behera galduko. Historian jasandako injustiziak, bai oraingoak eta bai aurrekoak, ez dira epaitu barik geratuko.

Justizia existitzen bada, betiko bizitza derrigorrezkoa da. Bestela nok egingo deutsee justizia errubakoei? Nok ordainduko ditu munduko injustiziak? Errubakoak ez daukee zetan ordaindu errudunen kulpak. Mundu honetan justiziarik ez danez egiten, baten batek egin beharko deutsee. Eta egingo deutsee-na Jaungoikoa izango da. “Aberats gaiztoaren eta Lazaro eskekoaren” parabola gogoratzen dau Aita Santuak. Baita Platonen testu eder bat be aipatzen dau gauza bera azpimarratzeko.

Ez dauko, ba, zentzunik, justiziaren izenean Jaungoikoaren kontra protesta egitea. Ez dau protesta horrek balio. Jaungoikoak egin leike bakarrik egiazko justizia. Jaungoiko bako mundua, itxaropen bako mundu bihurtzen da. Justizia bako mundua izango da.

Jaungoikoaren azken epaia dogu itxaropenaren irudirik erabakigarriena. Azken epaia ez da bildurra hazurretaraino sartzeko, egiazko itxaropena sortzeko baino. Aldi berean, Jaungoikoa zuzena eta grazia be bada. Baina graziak ez dau justizia desegiten. Graziak ez dau injustizia eskubide bihurtzen. Bestela grazia hori oso merkea izango litzake. Holako graziaren aurkako arazoa darabil Dostoievskik bere “Karamazov anaien” nobela sonatuan. Azkenean, gaizkileak eta biktimak ez dira betiko bizitzan mahai berean jesarriko.

Jaungoikoa justizia eta grazia danez, bere azken epaiari itxaropenez beterik itxaron behar deusagu. Grazia hutsezko epaia balitz, mundu honetako gizakion ekintzak ez leuke garrantzirik izango. Non geratzen dira errubakoen justiziaren oihuminak? Ostera, justizia hutsa balitz Jaungoikoaren epaia, bildurgarrizko epaia bihurtuko litzake.

Baina epai hori, Kristo kurutzeratuaren eta biztuaren aurrean egingo danez, argi eta garbi ikusiko dogu Jaunarengan justizia eta grazia guztiz besarkatuta dagozala.

Amaitzeko, lerrotxo honeekin “Spe salvi” Entziklikari gainbegirada bat besterik emotea baino ez dot gura izan. Merezi dau entziklika honek azterketa sakonago bat egitea! Eskertzekoa da Donostiko “Idatz” argitalpenak euskeraz jarteko hartu dauan erabakia. Beste horrenbeste egin eban Benedikto XVI.aren “Deus Caritas est” lehenengo Entziklikaz be.

A. Olea